

IRAKASLE IZAN NAHI DUT

IRAKASLEEN ZAINZA BERMATUZ



Irakasle izan nahi dut prozesuak misio bat du, irakaslea bere jardunera gustura joatea. Gizarteak, politikariak, familiak eta hezitzaileak hezkuntza komunitatearen bideratzaileak dira, nahi edo ez, guztiek eragina dute ikasgelan. Kontua da, ikasleen jokamoldeak, gurasoen ikuspuntuak eta irakasleak, haien mugak neurtzen ibili behar izateak dena nahaspilatzen duela, eta ondorioak hezitzaileen motxilan sartzen dira. Ikaragarria da irakasleek guzti hau oholtzara eramatean aurkeztu diren abaguneak, irakasleak bere roletik egin dezakeena kalibratu eta beste rol batzuen abantailak ezagutzen dituzte. Antzerkiak ematen digun opari honen bidez, garatu beharreko rolak entseatzeko haien jarduna aberasten duten “karanbolak” suertatzen dira, senetik bizi eta barneratzen dira, bizi-poza irabaziz.

Mamia:

Irakasleak haien samarekin iristen dira, hau da ezinezkotzat dituzten erronkak zerrendatuta, ikasle puntualekin daukaten babes faltaz eta gurasoekin harreman artifizial oztapatuaz nekatuta; aldatzeko grina dakarte. **Irakasle izan nahi dut prozesua** hor hasten da, irakasleek aldatzea nahi duten hori adituz. Bideratzaileak jasotakoa zerrendatu eta antzerkiari protagonismoa emanez, giroa erlaxatu eta konturatu orduko, ikasle gaiztoaren paperean sartuta disfrutatzen aurkitzen dira, edo irakasle zorrotz baten paperean isiltasunarekin jolasten. Antzerkiaren alor pedagogikoa ezagutu ondoren, zerrendan suspertzen diren zailtasunetan oinarrituta, taldeka eszenak

sortzean dituzte. Entseatuz, “Orain eta hemen” izanik, aukerak anitzak dira: rola ordezkatu, hitzak elkarren ahotan ipini, espazioak markatu, distantzia neurriak aldatu, emozioak partekatu ... Partaideek ikerketa hau haien gorputzetik, burutik eta bihotzetik bizitzean, haien jardutean edota rolean egin beharreko aldaketak identifikatzen dituzte. Eta berriz ere, oholtzara daramagu etekin gehiagoren bila.

Baliabideak eta Eskakizunak:

- **Irakasle izan nahi dut prozesua** hezkuntza komunitateko langileekin pentsatuta diseinatu da, bakoitzak bere neurrian, baina denek dute aukera prozesuari etekina ateratzeko eta porturatzeko.
 - Magisteritza burutzen ari diren ikasleei.
 - Ikastetxeei.
 - Ikastetxe elkarte desberdinei.
 - Irakasle komunitatei.
- 6 < 16 partaide.
- Partaideak arropa komodoa ekartzea komeni da, ariketak apropos egin ahal izateko.
- Espazioa garbia aharik eta zutabe eta altzari gutxien, zurezko lurra edota esterilekin hornitua eta 2m² pertsonako.

Onurak:

- Taldea sendotu. Partaide guztien artean harreman goxo bat sortzen da, denak etxe berdinekoak izan ez gero, kohesio lan paregabea gauzatzen da.
- Inteligentzia emozionala. Nork bere barrenak ikertzen ditu, emozio lanketa itzela da, emozioen aberastasuna, aniztasuna eta malgutasuna biziz, enpatiak erraieran hartzen du bere lekua.
- Gorputzari arreta. Une esanguratsuak, berriak eta hunkigarriak bizitzean, une horietako jokamolde desberdinak ezagutzeko aukeraz baliatuta, gorputzari izan behar diogun arretan trebatzen gara.
- Gorputzeko memoria. Gorputzak barneratuta dituen erreflexuak, distantziak, keinuak, emozioen jokabideak ... interpretazioaz lantzen dira, irudimena eta oroimena lanean ekinda, gorputzaren memoria deskubritzen da.
- Rolaren garapena. Eszenak egiterakoan, partaideek haien rola kanpotik begiratzean, hobariak eta oztupoak nabarmentzen dituzte eta beste rol batzuk landuta, abantailak irabazi ditzaketela konturatzen dira. Haien burua, gorputza eta anima babesteko egin behar dituzten aldaketak barneratu, eta jardunean dituzten pisuak arintzen dituzte.

Antolaketa:

- 6 < 12 orduko prozesua da.
- Saio bakoitzaren luzapena: 2 ordu < 4 ordu.
- Antolatzaile eta bideratzaileak batzar baten bueltan azaltzen dituzte taldearen idiosinkrasiak eta martxan jartzeko ereduak.

Egitarauaren bermatzea:

- **Irakasle izan nahi dut prozesua** sortzeko, antzerkiaren alor desberdinetatik jaso da materiala eta teknika nabarmenena psicodrama da: Taldean egiten den terapia da, pazienteak bere patologia eszenaratzean datza. Iurgi Etxebarria psicodramako teknikan trebatu ondoren, antzerkiaren jakintzaz batu eta **Irakasle izan nahi dut prozesua** sortu du.
- Prozesua sortzeko, zuzendaritzan, irakasle gelatan, guraso elkarteetan eta ikasleen hitzak jaso dira.
- Prozesuan barneratuta, aldi oro, partaideen arreta ziurtatzen da, guztiok bat eginik goazela sentitzeko eta prozesuan eginiko lana barneratzeko.
- Egitarauaren prozesua bizirik mantentzeko, ikastaldi bakoitzaren ondoren balorazioa egiten da, bai partaideekin baita antolatzaileekin ere.

Materiala:

- Apropox arduratzen da behar den material guztia ekartzeaz.

Zuen hezkuntza komunitatean, hemen azaltzen diren ikasgaiak sendotu beharra sentitzen baduzue, jo gugana. Zuen zalantza, gure jakin-mina da, konpromiso gabe, oraindik guztion artean eragin behar dugun zientziari buruz hitz egiten ari gara.